Tapa gogorreko eta formatu handiko liburu da, akrilikoan eginda dauden irudi deigarriekin. Justine Braxen ilustrazioak ikusgarriak dira, ikuspegi desberdinak erabiltzen dituelako: orri osokoak, gertuko planoak protagonistak aurkezteko, eta irudi panoramikoak natura eta paisaiak goraiatzeko. Aldi berean, erabiltzen dituen koloreak oso argitsuak eta erakargarriak dira. Tonu zuri-urdinek ia irudi guztiak estaltzen dituzte, eta ugari dira paisaia elurtuak zilar-malutekin eta arriskuaren berri ematen duten tonu gorrixkak. Ilustrazioak bat datoz testuarekin, eta indarra eta poesia ematen diote narrazioari.

Horrez gain, bizirauteko grina, komunitate-sentimendua eta mezu bakezale sendoa dira istorio honen gakoak. Aldi berean, maitasuna, adiskidetasuna eta ingurumenaren babesa dira album honetan transmititzen diren balio batzuk.

Kontakizun ederra, samurtasunez beterikoa eta irudi zoragarriaz ilustratua. Bake garrasi bat, gerraren gaitzespena bultzatuz.

Rylant, Cynthia

Bizitza

Ilustratzailea: Brendan Wenzel

Itzultzailea: Amets Santxez Munain (Bakun S.L. itzulpen zerbitzuak)

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2020

ISBN978-84-9106-962-1

Cynthia Rylanten album eder honetan, bizitzak eta naturak eskaintzen diguten jakinduria ageri da.

«Bizitza txiki-txiki hasten da, baina berehala hazten da, eta batzuetan erraza ez bada ere, beti eskaintzen dizkigu gauza miresgarriak eta bide berriak». Hasierako mezu hau bukaeran ere ageri zaigu, kontakizuna borobilduz.

Bizitza gauza zoragarriez beteta dago, ez bakarrik une onenetan, baita borroka-garaietan ere. Munduko animalia ezberdinen ikuspegiaren bitartez (elefante, zein tximino, zein bale...) idazleak hausnarketa sentikor bat eskaintzen digu, egunero gure inguruan edertasuna aurkitzera gonbidatuz; eta baita, gertaera zorigaiztokoetan, aurre egiteko ausardia ere.

Idazleak indar handiko mezuak helarazten dizkigu: «Gogoan izan: munduko txoko guztietan, bada zer maitatua»; «Eta merezi du goizean jaikitzea, egunak zer ekarriko digun ikusteko»... Itxaropenez betetako mezuak.

Horretaz gain, Brendan Wenzelen ilustrazioek paisaia eta izaki zoragarriez janzten dute albuma, naturaren edertasunaz disfrutatzeko. Kolorez eta bizitzaz beteriko irudi horiek testuko xehetasunak osatzen dituzte, eta opari paregabea eskaintzen digute adin guztietarako.

Voltz, Christian

Beti bezala, ezer ez?

Itzultzailea: Xabier Olarra

Arre (Nafarroa): Pamiela, 2019

ISBN 978-84-9172-119-2

Album guztiz originala aurkezten digu Cristian Voltzek. Istorio atsegin honetan, Louis jaunak lurrean zulo bat egin eta hazitxo bat ereiten du, ilusio handiz eta jarraibide zorrotzak kontuan hartuz: zulo izugarri bat egin, hazia bota eta lurra

ondo zanpatu, lurra ondo busti... Egunero joaten da bere lanaren etekina ikusteko asmoz, txori baten begiradapean. «Beti bezala, ezer ez», egiten du bere baitan Louis jaunak, ezer ez dela ernatzen

ikusita. Baina, halako batean, zerbait aldatzen da. Louis jauna bertan izangoote da?

Hausnarketara gonbidatzen gaituen mezu eder bat dakar liburuak: gure helburuak lortzeko, saiatzea eta ekinak izatea zein garrantzitsua izan daitekeen.

Bestalde, ilustrazioak material birziklatuak erabiliz eginak daude; adibidez, papera, alanbrea, txapak, soka... Horrek testuari ulergarritasuna eta umorea gehitzen dizkio.

Horrek guztiak album originala eta erakargarria bihurtzen du.

8 urtetik aurrera

Astiz Martínez, Iñigo

Joemak eta polasak

Ilustratzailea: Maite Mutuberria Larraioz

Donostia: Elkar, 2019

ISBN 978-84-9027-968-7

Jolasa eta entretenimendua dira Iñigo Astizek eta Maite Mutuberriak egin duten poema liburu honen helburua.

Izenburutik hasi eta liburuaren bukaeran agertzen den aurkibidera arte, irakurleari parte hartzeko parada eskaintzen dioten jolaserako poemak topatuko ditugu, irakurtzeko, kontatzeko, asmatzeko; badira grafiarekin jolasten duten poemak, edo letra, silaba edo hitzekin; soinuarekin edo logikarekin jolasten dira beste batzuk, paradoxak ere badaude, proposamen original eta umoretsuak denak ere.

Maite Mutuberria liburu honen ilustratzaile eta konplizeak dioen bezala, «ondo marrastu beharrean, pozik eta gustura marrazteko aukera eman dit liburu honek». Poema bakoitza irudi txiki batez apainduta dator, baina badaude bi orrialdeko ilustrazioak ere, denak jolaserako aproposak. Eta bistakoa da emaitza: hainbat koloretako akuarelek bikain osatzen dituzte *joemak eta polasak*.

Iñigo Astizek Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria jaso du 2020an, eta epaimahaiak azpimarratu du liburuak literaturaren alderik ludikoena aldarrikatzen duela.

Bowley, Tim

Jakes eta Herio

Ilustratzailea: Natalie Pudalov

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Tafalla: Txalaparta, 2019 (Txo!)

ISBN 978-84-17065-70-6

«Gaur ni, bihar zu» edo «Gero arte» esaldia topa dezakegu hilerrietako ateetan. Eta horixe da, hain zuzen ere, britainiar jatorria duen herri-ipuin honetan lantzen den gaia: heriotza. Tim Bowleyren moldaketa honetan, Natalie Pudaloven ilustrazio ilunak ezinbestekoak dira.

Eta, hala, Jakesek Heriorekin topo egiten du hondartzarako bidean; ez da harritzen, badakielako ama hilzorian dagoela, eta ñimiñoa sentitzen da. Baina mutiko azkarra da, eta jolasa erabiliko du Herioren aurrean defendatzeko. Ez du ulertzen Herioren beharra, eta flasko batean sartzea lortuko du.

Pozik bere amaren heriotza saihestu duelako, etxera itzuliko da. Eta ama kantari aurkituko du.

Hala ere, laster konturatuko dira eurek bizirik egoteko beste izaki batzuk hil behar dituztela; alegia, animaliak. Ezinezkoa, ordea. Barazkijale egingo dira, baina barazkiek ere, mendebaldeko kulturaren, arima dute, eta ezin dituzte lurretik atera. Heriorik gabe ezin bizi. Eta Jakesek, beldurrik gabe eta heriotza onartuz, Herio flaskotik aterako du. Momentu malenkoniatsua, bai, baina adorez eta amaren eta semearen arteko maitasunez betea.

Bai eskolan bai familian heriotzara hurbildu eta hartaz berba egiteko liburu bikaina. Heriotzaren prozesu naturala ulertzeko eta norberarenaz ere pentsatzeko balioko diguna.

Itxura beldurgarria du Heriok, bai, baina haratago begiratzeraz eramaten gaitu ipuin honek, eta ulertu egiten dugu.

Igerabide, Juan Kruz

Euskal herrietako ipuin harrigarriak: deabruak, katuak, hartzak eta txirulak

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2019

ISBN 978-84-17940-13-3

Garai batean sutondoan kontatzen ziren ipuin klasikoen usaina darie Juan Kruz Igerabidek eta Elena Odriozolak Denonartean argitaletxearen eskutik edizio txukun honetan aurkezten dizkiguten ipuin harrigarri hauei. Aurreko liburuetako

ildoari jarraituz, *Euskal Herrietako ipuinak* zein *Euskal Herrietako ipuin gaiztoak*, oraingoan ere bost ipuinez dago osatua.

Egilearen hitzaurre batek ematen dio hasiera liburuari. Bertan, Juan Kruz Igerabidek ipuinen jatorri tradizionalaren izaerari heltzen dio, eta haien balio moralaz hitz egiten digu: «Horrelako ipuinek adierazten diote haurrari bizitzan bakarrik moldatzeko trebeziak landu behar dituela, hala gorputzekoak nola psikekoak; izan ere, egunen batean ez du gurasorik izango, edo gurasoek ezin izango diote lagundu. Bizirauteko eta beraz heltzeko gai izan beharko du; ez dago umetokira bueltatzerik. Bizitzak eskaintzen dizkigun objektu magikoak aurkitu behar horretarako, eta erabiltzen ikasi. Pertsona bakoitzak barruan duen ahalmena azaleratzeko unea da».

Elena Odriozolaren ilustrazioek, oraingo honetan, lamina bakarreko zuri-beltzeko itzal-irudi segida batek osatzen dute. Ipuinaren hasieran kokatzen dira, eta, ipuina bukatu ostean, laminak berrirakurtzea eskatzen du, orduan ulertuko baitugu erabat ipuina eta osotasuna emango baitiogu istorioari. Baliabide hori oso interesgarria da, irudi soilen bitartez memoria lantzeko baliagarria izango baita, eta irudimena pizteko euskarri. Hirugarren liburu honek aurrekoek zabaldutako bideari eusten dio, eta aukera ezin hobea eskaintzen digu ipuin tradizionalen iturritik edateko.

Rodari, Gianni

Istorioen zooa

Ilustratzailea: Maite Mutuberria

Itzultzailea: Uxoá Iñurrieta

Bilbo: A fin de cuentos (2020)

ISBN 978-84-120914-4-1

Gianni Rodari, haur-literaturako ***signore*** handia! Bere fantasiak eta originaltasunak erabat berritu zuten haur-literaturaren kontzeptua. Kazetaria, idazlea, militante politikoa, maisua eta pedagogoa zen, eta Rodarik jarduera horiek guztiak erabili zituen umeengan irudimena eta sormen-sena suspertzeko. Haur-literaturari egin zion ekarpena ikaragarria da, kalkulaezina. Ondorengo idazle askorentzat erreferente bihurtu da, eta bere lanek ez dute inolako gaurkotasunik galdu. Idazle konprometitua, haren testuek beti bilatu izan dute munduaren ikuspegi kritiko bat, fantasiatzko jolasez betetako hizkuntza berri baten bidez.

Gianni Rodariren ahaleginek eta hark haur-literaturari eskainitakoak ordaina izan zuten 1970ean, Hans Christian Andersen saria lortu zuenean; nazioarteko saririk handiena haur-literaturako idazle batentzat.

Izenburuak dioen bezala, ipuin ezberdinez osatutako liburua da hau. Sei ipuin labur, animaliak protagonista dituztenak, bi haur protagonista dituen beste ipuin baten barruan. Narrazio arinak eta elkarrizketaz josiak, irakurterrazak, motzak eta interesgarriak dira. Irakurlea lehen orrialdetik harrapatzen dute. Baina arintasun horren azpian, gure gizartearen kritika sendo bat aurkituko dugu: animaliei ematen diegun tratu txarra, naturaren suntsipena, gure espeziearen harrokeria, boterea lortzeko borroka eta ustelkeria... Rodariren asmoa, behin etaberrero esan zuen bezala, kontzientziak mugitzea eta ekintzara gonbidatzea izanzen, eta bete-betean lortzen du liburu honetan.

A fin de cuentos argialetxeak egin duen edizio zaindua goraiatu behar dugu. Uxoia Iñurrietaren itzulpena bikaina da, eta Maite Mutuberriaren irudiak, berriz, sotilak eta ederrak. Horien guztien lan onari esker, irakurleok askoz gehiago goza dezakegu irakurketaz.

Desberdintasunaren eta injustiziaren aurkako borrokan, irakurketa arma baliotsua dela sinesten dugulako. Mila esker, Gianni Rodari! 10 urtetik aurrera

Coridian, Yann

Seme bakarra izan nahi dut

Ilustratzailea: Gabriel Gay

Itzultzailea: Miren Agur Meabe

Donostia: Elkar, 2019 (Xaguxar; 237)

ISBN 978-84-9027-871-0

Umorea mundua bezain zaharra da. Gizakiek barre egiten ikasten omen dute hitz egiten baino lehen. Baina umoreak osagai subjektibo garrantzitsua du: pertsona guztiei ez zaizkie gauza berak egiten barregarri. Horregatik, zaila da literaturan eta bizitzako beste esparru batzuetan jorratzea.

Umorezko literaturak zentzu bikoitzeko hitzak erabiltzen ditu, eta, askotan, esaldi distiratsu eta zentzugabez beteta dago. Azken finean, umorea errealitatea itxuraldatzeko bide bat besterik ez da, absurdoa eta irrigarria izan dadin. Literatura mota horrek eragina du gure aldarrean, alaitu egiten gaitu, eta, aldi berean, gogoeta eragiten digu.

Umorea eta ironia dira, hain zuzen, liburu honen gatza eta piperra. Paulek zortzi urte ditu, eta badu arazo potolo bat. Egia esan, arazo potoloa ama da. Tira, ama ez, bidean datorren «hori» baizik. Ume bat. Paulen lekua hartuko duena familian. Paul lur jota eta nahastuta sentitzen da, eta beldur da bere errealitatea aldatuko ote den. Milioi bat aukera imajinatzen ditu, guztiak absurdoak, irakurlearen irribarra piztuko dutenak. Azken finean, beldur unibertsalak ditu: aldaketaren eta ezezagunaren beldurra, familiaren erdigunea ez izateko beldurra, gurasoen maitasuna galtzeko beldurra, seme bakarraren estatusa galtzeko beldurra...

Irakurlea, kontzienteki edo inkontzienteki, protagonistarekin identifikatzen da berehala. Nork ez ditu beldur horiek berak sentitu antzeko egoera batean edo bizitzako beste egoera batean? Protagonistaren eta irakurlearen arteko identifikazio horrek empatia eragiten du. Irakurle gazteek Paulekin bat egingo dute segituan, eta ziur irribarre egingo dutela liburuaren irakurketan aurrera eginahala. Narrazioak erritmo bizia du. Baliabide literario ugari konbinatzen ditu, hala nola komiki erako irudi eta binetak, lehen pertsonan egindako narrazioa, ohar txikiak eta elkarrizketa ugari. Horren ondorioz, irakurketa dibertigarria, arina eta atsegina egiten da. Gabriel Gayren ilustrazioak eta Yann Coridianen estiloa ere ezin hobeto osatzen dira. Irakurle amorratuek eta hain finak ez direnek ere gozatuko dute Paulen estualdi eta burutazioekin.

Umorea bizitzako zailtasunei heltzeko estrategia izan daiteke haur literaturan, eta liburu hau horren adibide ona da. Literatura – Bizitza – Ikaskuntza – Umorea. Ez galdu!

Gómez, Ricardo

Besteak ez bezalakoa

Ilustratzailea: Jordi Vila Delclós

Itzultzailea: Aintzane Atela

Euba (Bizkaia): Ibaizabal, 2019 (Paper txoriak; 22)

ISBN 978-84-9106-730-6

Samuel mutiko berezi bat da. Mundua zenbakien bitartez ikusten du. Horrela, 9:30ean, 3.653 egun beteko ditu (gero esango digu 10 urte dituela); bere logelaren neurri zehatzak esango dizkigu, eta haren kezkak ere askotan ildo beretik joango dira, hots, txepetx batek zenbat luma dituen galdetuko du, edo Interneten bilatuko du zenbaki bakoiti altuena zein den. Zeren Samuel ez da bere gelatik ateratzen; gauetz baino ez ditu begiak leihotik at jartzen, munduan zer dagoen ezagutzeko. Horregatik dakigu Sam besteak ez bezalakoa dela.

Psikologoak eskatuko dio koaderno batean bere gogoetak idazteko. Horrela jakingo dugu zer pasatzen den Samen burutik. Aitak argazki kamera bat oparituko dio. Eta hortik aurrera hasiko dira aldaketak Samen bizitzan. Bere logelatik irteten hasiko da, lagun berriak egingo ditu. Mundua beste era batean ikusten hasiko da.

Trebetasun handiarekin idatzitako nobela dugu hau. Protagonista dugun Sam pertsonaia tentu handiarekin landuta dago, eta narrazioak, erritmoa eta trama ondo lerrokatuta dauzka. Misterioa eta intriga ukituak ere nabari dira. Matematikako kontzeptuak, mutiko bereziak, intriga kontuak, beldurrak, eta uxatu behar ditugun munstroak dira protagonistak eleberri honetan. Dena Samuelen

bitartez, mutiko oso berezi baten bitartez, eleberri oso berezi batean. Guztiz gomendagarria.

Kinney, Jeff

Dena ala ezer ez

Itzultzailea: Antton Olano

Irun: Alberdania, 2019 (Gizajo baten egunkaria; 11)

ISBN 978-84-9868-415-5

Beti iruditu izan zaigu aipagarria sail honek duen arrakasta eta irakurle gazteekin duen amodiozko istorio amaigabea. Gure gizarte hiperteknologiko honetan, gailu eta tramankulu elektronikoen gure izaeraren azken zirrikituak gailendu dituzten garai hauetan, hara non agertzen den pertsonaia malapartatu eta lotsagabe bat, gaztetxo bhotzak bereganatu dituen bere izaera xume eta lagunkoiarekin.

Eta arrakasta horren gako nabarmenatariko bat, umorearen eta ironiaren erabilera zuhurrak gain, errealitatearekin duen erlazio zuzenean kokatuko nuke. Azken liburu honetan, lehen aipaturiko teknologiaren inguruko hausnarketa egiten du egileak: Gregen amak esaten omen dio bideo-jokeak eta telebista bigundu egiten dutela Gregen garuna, eta telebista eta kontsola itzaltzen baditu agian egunen batean aurkituko duela dohainen bat hor zegoenik ere ez zekiena. Ildo horretatik, ideia zoragarri bat bururatzen zaio: Halloween eguna gertu dagoelarik beldurrezko pelikula bat egitea, gozokiz beteriko poltsa xeble bat lagungarri duela. Handik aurrera, pasadizo xebleenak eta txundigarrienak biziko ditu gure lagun kutunak, munduko zinegilerik arrakastatsuenak eta aberatsena bilakatzeko nahian. Inoiz ezin baitugu ahaztu ez dagoela ezer zirraragarriagorik eta dibertigarriagorik gure irudimena lantzea baino, eta, lagun artean bada, are hobeto.

Kinney, Jeff

Eta hau da nire egunkaria

Itzultzailea: Miren Arratibel

Irun: Alberdania, 2019 (Rowley naiz, mutiko superjatorra)

ISBN 978-84-9868-548-0

Greg mutikoaren liburuak mundu mailako best sellerrak dira aspalditik. Arrakasta horren ondorioz, bilduma berri bat daukagu esku artean. Izan ere, Rowleyren egunkaria Gregen abenturen *spin off* gisa jaio da.

Oraingoan, Rowley bera da egunerokoa idazten ari dena, eta haren ikuspuntutik biziko ditugu abentura berriak. Rowley Jefferson Greg ospetsuaren lagunikonena da. Paper garrantzitsua izan du orain arteko ia liburu guztietan. Gregen antagonista da, kontrajarria eta osagarria aldi berean. Rowley, Greg ez bezala, inozoa, atsegina eta alaia da, ume heldugabea hainbat zentzutan.

Idazleak bigarren mailako pertsonaia honi eman dio ahotsa bilduma honetan. Gregen antzera, egunkari bat idatzi nahi du, egunkari propioa, baina Greg berehala konbentzitu du bere biografoa izateko. Rowleyk Gregen adarjotzeak

jasaten ditu etengabe; hala ere, haien arteko harremana dibertigarria da, eta elkar orekatzen dute.

Bildumaren irakurle sutsuek ondo ezagutzen dute Rowley, baina orain haren begietatik ikusiko dute istorioa; alegia, berak ikusten duen erara. Hori dela eta, ilustrazioak ere aldatu egiten dira, eta protagonistek Rowleyk emandako itxura izango dute, haren ikuspegitik eta estilo propioarekin marraztuta baitaude.

Rowley edo Greg, Greg edo Rowley, berdin dio, biokin izango dugu irribarrea ezpainetan eta biokin gozatuko dugu.

Lertxundi, Anjel

Donostian elefanteak ikusi zirenekoa

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Donostia: Erein, 2020 (Pikotxean; 04)

ISBN 978-84-9109-626-9

1980ko hamarkada hasieran argitaratu zuen Anjel Lertxundik *Tristean kontsolatzeko makina* ipuin-bilduma. Liburu hartan hainbat ipuin biltzen ziren; besteak beste, orain liburu bezala argitaratu den *Donostian elefanteak ikusi zirenekoa*. Izan ere, azken ipuin horren bertsio luzatua argitaratu du Erein etxeak «Pikotxean» bilduma berrian. Jatorrizko bertsioak hiruzpalau orrialde besterik ez zituen; oraingoan, egileak forma berria eman dio, eta eguneratu egin du. Bestalde, duela 40 urte bezala, Antton Olariaga ilustratzailearen laguntza izan du gaurkotutako bertsio honetan ere.

Gianni Rodari idazlearen lanean oinarrituta, Rodarik sortutako «binomio fantastikoaren» teknika jarraitu zuen Lertxundik ipuin hauek idazteko. Teknika horren arabera, loturarik ez duten bi kontzeptu edo ideia elkartzen badira, horien arteko erlazio fantastiko bat sortzen da, eta narrazio-testu irudimentsua eraiki daiteke horrekin. Kasu honetan, elefanteak eta Donostia elkartu zituen Lertxundik ipuin hau idazteko.

Donostiako alkateak, bulegoko leihoa irekitzen duenean, ezin du sinetsi begien bistan daukana. Kalea neurri eta mota guztietako elefantez beterik dago. Batzuk soka-saltoan, beste hainbat eguzkia hartzen, tartean egunkaria irakurtzen dagoen beste bat, eta beste batzuk elkarrekin hizketan. Zer gertatu da? Egun luzea izango du alkateak elefanteak nondik irten diren jakin nahian.

Bistan denez, absurdotik asko dauka ipuinak, baina, horrez gain, gaur egungo gizartearen kritika ironikoa ere bada, besteak beste botereari eta agintari politikoei egiten dien kritika zuzena eta umoretsua. Azken finean, didaktismotik urrun dagoen kalitatezko literatura.

12 urtetik aurrera

D'Adamo, Francesco

Okerreko aldean. Itxaropena Iqbalen ondoren

Itzultzailea: Lurdes Auzmendi eta Koldo Biguri

Donostia: Alai, 2020 (Ganbara)

ISBN 978-84-120944-5-9

Iqbalen historia liburuaren jarraipena dugu honako hau. Egile italiarrak askatasunaren aldarrikapena eta umeen lan-jazarpena salatzen zituen liburu hartan, omenaldi berezia eskainiz munduan zehar lan-baldintza ankerrak pairatzen dituzten haurrei, Iqbal haur pakistandarrean irudikatuta.

Oraingo honetan, Fatimak eta Mariak, batak Pakistanen eta besteak Italian, Iqbalek hasitako borrokarekin jarraituko dute, gaur egun gure herrialde garatuetan ere badaudelako egoera lazgarriak eta borrokarako arrazoiak. Horretarako, egile italiarra Bruce Sprinsteen abesti baten letran oinarritu da:

«Orain lan bila nabil, baina zaila da aurkitzen. Hemen irabazleak eta galtzaileak soilik daude, kontuz ibili beharra dago marraren okerreko aldean ez bukatzeko» (19-20 or.). Metafora hori abiapuntu hartuta, okerreko aldean bizi diren biztanleen bizimodu krudelak aurkeztu ditu, gaur egun pil-pilean dauden gaiak argitara emanez: emigrazioa, lan-esplotazioa, emakumearen eskubideak, arrazakeria.

Istoria bi mailatan garatzen da, bi protagonisten arteko posta bidezko mezuak direlarik ardatz nagusia. Horrela, Mendebaldeko herri garatu batean gertatzen diren egoera lazgarriak Pakistanen gertatzen direnekin alderatzen dira. Eleberririk, beraz, injustiziaren arteko marra ikusezin horrek herrialde ezberdinak zeharkatzen dituela erakutsiko digu.

Aurreko lanaren ildoari jarraikiz, erritmo biziz garatuta dago istorioa, eta, uneoro, tonu errealista eta zuzena gailentzen da, egiantzekotasuna emanez kontakizunari, betiere ikuspuntu baikorra alde batera utzi gabe. Oraindik ere, beharrezkoa da mundu errealean garatzen diren injustizien inguruko gogoetak azaleratzea, gure erosotasunetik aldendu eta kritikarako ahalmena pizte aldera.

Lertxundi, Anjel

Haltzaren muinoa

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Donostia: Elkar, 2020

ISBN: 978-84-9027-985-4

Nobela honetako protagonista nagusia haltz bat da, arbola bat, eta bere ametsa

munduan barrena ibiltzea da. Hala, naturak bidaiatzeko eta aparteko abentura bizitzeko aukera emango dio. Lertxundik, kapitulu motzak erabiliz, maisutasunez kontatu dizkigu haltzaren ibilerak. Narrazioan murgilduko gara konturatu gabe, eta bere kutsua igarriko dugu liburua ixtean.

Baina zein da istorio honetako haltza? Ba, berrogei bat urte dituen arbola; baina benetan inporta duena da ametsez beteriko biziduna dela. Kontakizunaren hasieran triste dago; berak batera eta bestera libre ibili nahi du, eta kexatuko da bere egunen monotoniaz, lagun faltaz, bakardadeaz... harik eta uholde batek bidaiatzeko aukera ematen dion arte. Ibilbide zakarrari ausardiaz ekingo dio. Lur hartatik ateratzeko beharra dauka, eta, lehen ez bezala, ez da kexatuko, disfrutatzen

ikusiko dugu, eta azkar, azkarregi pasatuko da, bizitzaren beraren moduan alegia. Eta horrela, bere bihotz bakartia bere bidaiaren amaierara heldukoda, egun berdintsuen goxotasunari eta bidaia sutsuei uko egin gabe. Lur berri bateko bisitari berria da, eta konbentzitura dago ondo hartuko dutela. Hala ote? Gazteentzat, hots, ametsak dituzten pertsonentzat, hutsunerik gabeko liburua. Abentura bizia eta freskoa, ederra, arnasarik

14 urtetik aurrera

Ende, Michael

Momo

Itzultzailea: Mikel Babiano

Etxebarri (Bizkaia): Begiko, 2019

ISBN 978-84-16839-35-3

Michael Ende alemaniar idazlearen eleberria dugu hau. Lehen aldiz 1973an argitaratu zen, eta, 1974an, Gazte Literaturako Alemaniako Sariaren irabazlea suertatu zen. Michael Ende oso ezaguna egin zen, eta harena dugu *Istoria amaigabea* eleberri fantastiko arrakastatsua ere. Haren liburuek haur eta gazteen narratibak duela gutxi izan duen aberastasun eta konplexutasun handiagorako joera erakusten dute, baita gai helduei irekitzekoa ere. Ez da euskaraz argitaratu den bertsio bakarra, baina bai berriena. Santillana argitaletxeak Alfaguararen bidez egindako lanari esker ezagutu genuen euskaraz lehenengo aldiz *Momo*, 1980ko hamarkadan. Esku artean dugun 2019ko euskarazko edizio hau Mikel Babiano itzultzailearen lanaren ondorio da, zeinak alemanetik itzuli baitu zuzenean, Thienemann Verlag argitaletxearen 16. edizioa oinarri hartuta.

Eleberri honek Momoren historia kontatzen du. Momo Italiako hiri handi batean bizi da, hutsik dagoen anfiteatro batean. Momo haurra umezurtza da, eta bakarrik

bizi da. Baina lagunak ditu nonahi, eta denak ditu alboan, laguntzeko eta esku bat botatzeko. Jolasean, hizketaldietan eta barrezka pasatzen dituzte ia egun guztiak, eta, liburu honetako lehen zatiaren kapitulu bakoitzean, Momok berarekin hitz egitera eta denbora goxo pasatzera etortzen diren lagun eta auzokideen pasadizoak kontatzen ditu egileak.

Momo oso berezia dela ere suma dezakegu berehala. Berarekin hitz egitera hurbiltzen den oro ondo sentitzen da, eta ekarri duen arazoa edo buruhaustea konponduta entzunez irtengo da. Zeren Momok ez du beste zereginik: istorioak entzun eta istorioak kontatu. Bi lagun-min ditu: Beppo kale-garbitzailea eta Gigi Cicerone. Eta badirudi, ezer eduki ez arren, behar duen guztia baduela: denbora eta lagunak. Zoritxarreko egun batez, Jaun Grisak etorriko dira. Pertsonaia arraroak eta ilunak dira, eta jendearen denbora lapurtzea dute zeregin. Pertsonak, bat-batean konturatu gabe, bizitzaz gozatzen uzten ez dieten bizipenetan murgiltzen dira; hala ere, beren bizitzak hizketaldi txikietan, lagun gutxitan eta lan asko eginez biltzen dira. Behin denbora lapurtu ondoren, pertsonak izaki monotono eta mingotsak bihurtzen dira, eta ez dute lortuko Jaun Grisek ezarritako sistema ilun horretatik irtetea.

Haiek inguruan daudenean, begiak lausotzen zaizkie, begirada itzaltzen, alaitasuna desagertzen, ilusioa desagertzen. Ondorioz, Momoren bizitza eta ingurukoena erabat aldatuko da. Bi aldiz pentsatu gabe, Momok, Casiopea dortokaren eta Hora maisuaren laguntzaz, Jaun Grisen aurka lapurtutako denbora berreskuratzeari ekingo dio. Eskerrak lortzen duen; izan ere, lagunari ez ezik gizateria osoari lapurtutako denbora berreskuratuz, berriro zoriontasuna eta lasaitasuna bueltatuko dira munduko pertsona guztiengana.

Gaszteentzako fantasiako liburu liluragarri eta konplexu baten aurrean gaude, eta gaurkotasanik galdu ez duena, gainera. Orain dela 48 urte idatzia izan arren, gizarte modernoak dakartzan arriskuei buruzko gogoeta kritiko bat proposatzen du. Batez ere denboraren erabilpenari buruzkoa, estresa edo gehiegizko lana egin beharrak dakartzan gabeziak, tristura, iluntasuna. Enderen liburuak, helduek irakurtzeko modukoak diren arren, haur eta gaztetxoei zuzenduta daude debatik bat. Egilea fantasiako istorioekin, existentzia bera bezalako istorio mitologikoekin ohitua eta obsesionatua egonda, lan gehienetan, haren literaturakritika egiten die gizakiarengan eta haren bizimoduan modu batean edo bestean eragiten duten benetako gaiei.

Bizi dugun mundu zoro honetan, funtsezkoena berreskuratzea da gakoa, bizitzako gauza sinpleekin geure burua elikatzea eta, zoriontsuak izateko, familiari kalitatezko denbora eskaintzea eta lagunekin partekatzea ahalik eta denbora gehien. Horixe da eleberri honetan gogoeta egitera eramaten gaituena. Garai ona gurea, klasiko hau berrirakurtzeko edo deskubritzeko.

Ende, Michael

Istorio amaigabea

Itzultzailea: Idoia Gillenea

Etxebarri (Bizkaia): Begiko, 2019

ISBN 978-84-16839-04-9

Michael Ende alemaniar idazlearen (1929-1995) eleberri hau 1979an argitaratu zen. Aldi berean gertatzen diren bi istorio biltzen ditu, bata erreala eta bestea fantastikoa, eta, pixkanaka, elkarrekin gurutzatzen dira.

Eleberriaren abiapuntua Bastianen istorioa da, amak umezurtz utzitako haur bat da, eta eskolan jazartzen dute. Egun batean, liburu-denda batean ezkutatu, eta liburu liluragarri bat aurkituko du. Irakurketan aurrera egin ahala, Bastianek sentitzen du eleberria gero eta errealagoa dela, eta halaxe garatzen da bigarren istorioa, Fantasiaren erreinuan kokatua.

Fantasiako munduaren protagonista Atreyu da, gudari gazte ausart bat. Fantasia gobernatzen duen enperatriza gaixo dago, eta hura sendatzeko erremedio baten bila bidaliko dute Atreyu. Istorioko bitxikeria nagusia zera da: Atreyu konturatuko da Bastianen laguntza behar duela erreinua eta enperatriza salbatzeko. Bastianek ez du sinetsi nahi bera giltzarria denik; hala eta guztiz ere, Fantasiako unibertsoan sartu, eta erreinua eta enperatriza salbatuko ditu. Areago, izen berri bat emango dio enperatrizari: Ilargiaren alaba.

Abentura-liburu bat izateaz gainera, non pertsonaiek hainbat mitologia (greziarra, nordikoa...) eta lan klasikoak (Danteren *Jainkotiar komedia*) aipatzen baitituzte, garai hartako gizartearen kritika bat da, eta zalantzan jartzen ditu boterea eta ustelkeria, arauak betetzea eta familia eta gizarte-harremanak. Liburuan, garrantzi handiko gaiak jorratzen dira: irudimenaren garrantzia, tristura nagusitzearen arriskua, eta ausardiaren eta konfiantzaren balioa.

Michael Enderen esaldi batek ederki biltzen du beti bilatu nahi izan zuen helburua: «Pertsonak ahazten badute barne-mundu bat badutela, horrekin batera beren balioak ahaztuko dituzte». Bere liburu gogoangarrietan, *Momon* eta *Istorio amaigabea*, uste oso bat transmititzen digu Endek: sormenik eta fantasiarik gabe, pertsonok Ezerez erabatekoan erortzen gara.

Haurrentzako liburu gisa argitaratu zen arren, *Istorio amaigabea* bikaina da adin guztietarako.

16 urtetik aurrera

Doyle, Arthur Conan

Baskervilletarren ehiza-txakurra

Ilustratzailea: Javier Olivares

Itzultzaileak: Xabier Olarra Lizaso, Usoa Wyssenbach Ibarra

Berriozar (Nafarroa): Denonartean; Iruñea: Igela, 2019 (Sherlock Holmes irudiduna; 2)

ISBN 978-84-17940-09-6

Arthur Conan Doyle 1859. urtean jaio zen, eta liburu hau 1902. urtean argitaratu zuen, atalka, baita irakurle andanaren onespena lortu ere. Egileak, folletoiaren teknikaz baliaturik, irakurleen arreta bereganatzea lortu zuen, kapitulu bakoitza tentsioz amaitzen zen gertakari batekin burutzen baitzuen. Oraingo honetan, Denonartean eta Igela argialetxeen eskutik, euskarazko edizio txukun baten aurrean gaude.

Narrazioa istorio mitologiko batean oinarritzen da: mortuko biztanleak beldurturik dauzkan Baskervilletarren ehiza-txakur lazgarriaren kontakizunean, alegia. Egileak, Sherlock Holmes detektibe zuhurraren eskutik, alde arrazionalaren eta mitologiaren arteko talka azaleratzen digu, bi mundu ezberdinen arteko ikuspegiak kontrajarriz. Eta, dikotomia hori gailentzeko, Sherlock Holmesek, Watson bere lankide hurkoaren laguntzarekin, metodo deduktiboa baliatuko du, hau da, datu konkretuen azterketa metodikoa. Narrazioan zehar irakurleak deskripzio zehatzak aurkituko ditu, datu eta xehetasunez beteak. Gehienbat gertakarietan oinarritzen da, eta pertsonaien deskribapenak azalekoak dira, zertzelada soilak. Egileak erritmo bizia ematen dio kontakizunari, eta maisuki lantzen misterioa osatuko duten hainbat elementu.

Aipatu beharrekoa da kontakizunean zehar hainbat gertakari modu koherentean uztarturik daudela, doako harridura eta azaleko larritasun une hutsaletatik urrun, gaur egun hainbat liburutan gertatzen den bezala. Ezin alde batera utzi, tentsio une gogoangarri horietaz gain, sineskerian oinarritutako momentu beldurgarriak, zenbait unetan Edgar Allan Poeren kontakizun laburrak gogora ekartzen dizkigutenak. Ildo horretatik, mortuak beste pertsonaia baten gisara jokatzeko du, bere izaera propioarekin.

Misterio gosez dagoen irakurleak une gogoangarriak biziko ditu ederki euskaratutako maisulan honekin.

Mitxelena, Karmele

Erakusleihoan

Ilustratzaileak: Karmele Gorroño eta Irene Irureta (Irrimarra)

Donostia: Erein, 2019

ISBN 978-84-9109-500-2

Karmele Mitxelenak aukeratutako tituluak ezin hobeto transmititzen du bertan islatzen zaigun itxurazko mundua. Bere lehenengo liburua da hau, eta, bertsotan bezala, kontaketa ere trebea da oiartzuar egilea. XIII. Peru Abarka lehiaketako irabazlea izan zen.

Irrimarrako irudigileek borobildu dute obra, Irene Gutierrezek eta Karmele Gorroñok. Horretarako, ilustrazio koloretsuak erabili dituzte, baina, *Altzoko Handian* ez bezala, tonu biziak alboratu eta testuaren tonu malenkoniatsua jaso dute.

Protagonistak bere izena ezkutuan gordetzen du; hala ere, barruko isiltasuna hautsi, eta bere bizitzako pasadizoak kontatuko dizkigu. Tristeak gehienak, amaseme batzuen erlazio toxikoa agerian uzten dutenak.

Gurekin bakarrik ez, musikarekin ere apurtuko du isiltasun hori. Bere bizitzako oinarrietako bat da, eta hiriaren anonimotasunean saxofoia jotzeak, askatasuna emateaz gain, zirkulu artifizial horretan eusteko indarra emango dio.

Ez du ahazten nondik datorren, baina, tamalez, bere lekua aurkitzeko zailtasunak ditu; akaso, ez delako bizi izan bere arau propioekin; akaso, ez delako erne egon bere barruari. Album intimoa, gai orokorrak ukitzen dituenak (gizartearen itxurakeria, pobrezia, bakardadea, ama eta seme-alabeen arteko erlazio toxikoa...), gazte zein helduentzako bikaina.

Hizkuntza zaindu baten eta ilustrazio erakargarrien bitartez ezagutuko dugu izenik gabeko protagonista honen alderdi bat. Beste aldea ezagutzeko gogoz geratzen gara. Agian, badago zirkulutik ateratzea. Alderdi hori, baina, irakurlearentzat uzten du Mitxelenak.

Zerrenda Berezia

Alberdi, Uxue

Lo potolo: lotara joateko ipuinak

Ilustratzailea: Eider Eibar

Irun: Alberdania, 2019

ISBN 978-84-9868-555-8

Nora joaten da gaua eguna heltzean? Ilargiak norekin egiten du amets? Zer ate ireki behar dugu poesia gure bizitzan sar dadin? Liburu eder honetan aurkituko ditugu hainbat erantzun. 30 testu inguru biltzen ditu edizio dotore honek. Eta dotorea diogu, kalitate handiko liburua delako: 8 idazle euskaldun ospetsu, ilustratzaile saritu bat eta edizio zaindua.

Forma eta estilo anitz konbinatzen ditu. Askotarikoak dira piezak, askotarikoak diren bezala lumak eta erregistroak. Liluratik pikardiara, jolasetik gogoetara, goxotasunetik irribarrera, edo algarara... Badira poema narratiboak, sonetoak, ipuin laburrak edota ahozko literaturaren moldeei gerturaten zaizkien bertso-lerroak ere.

Estiloari dagokionez ere, aniztasuna da nagusi. Gehienak tonu goxoz egindako olerkiak badira ere, parodia asmoz egindakoak edota elegiak ere badaude. Amaierarik gabeko ipuinak eta galde-erantzuneko jolasak.

Eider Eibarren ilustrazio borobil, gozo eta lasaiek ametsen munduan barneratzen gaituzte. Pertsonaia eta forma leunak txikien gustukoak izango dira, dudarik gabe.

Gurasoek hurrek beste gozatuko dute liburu honekin. Bidaia etengabea proposatzen dio liburuak irakurtzen duenari eta entzuten duenari. Baina ez bakarrik lotarako: edozein une da egoki eta aproposa hurrekin irakurketaz gozatzeko.

Poesiaren basoetan trostan sartzeko, bihotzean ehun tximeleta dantzan sentitzeko, amets ederrak izateko, tartetxo bat hartu eta irakurri.

Arzelus, Ane

Hitzen iruditegia

Testuetan laguntza: Juan Kruz Igerabide

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2019

ISBN 978-84-17940-05-8

Hitzen iruditegiak gure hizkuntzaz hitz egiten du, gure izaeraz, jatorriaz, baita

mundu ikuskera berezi batez ere, hori baita azken finean hizkuntza: Juan Kruz Igerabidek liburu zoragarri honen hitzaurrean dioen moduan, «hitzarekin batera jaio zen munduaren ikuskera eta mundua nola eraldatu hausnartzeko ahalmena».

Ane Arzelusek 30 hitz aurkezten dizkigu, alfabetikoki ordenatuta, eta, hitz bakoitzaren azpian, haren etimologia, hau da, hitzaren jatorria. Hala, hizkuntzaren aberastasunaren berri ematen digu, eta baita beta aparta eskaini ere gure hizkuntza maitatzeko, dastatzeko, gozatzeko. Hitz bakoitza kolorez betetako irudi adierazkorrez dago jantzita, eta horrek xarma berezia ematen dio liburuari, irudimenaren pizgarri ere bai baita. Horren lekuko dugu *aberats* hitzaren etimologia: abere asko duena, alegia. Paperezko diruarekin irudikatutako zenbait animaliak ederki jantzen dute hitzaren esanahia, baita jolasteko aukera paregabea eskaini ere.

Ezin alde batera utzi umorez zipriztindutako pasarteak, hala nola arkakuso eta zorri asko dituen animalari dagozkionak, haien jabe dena ez baita inondik inora aberatsa. Txalotzekoak dira honelako proposamenak, edizio zaindu eta txukunean gure hizkuntzaren inguruan hausnartzeko eta jolasteko aukera paregabea eskaintzen digutelako euskaldunoi eta gure hizkuntzaren magalera hurbildu nahi duen orori.

Carroll, Lewis

Alizia herrialde miresgarrian

Ilustratzailea: Chris Riddell

Itzultzailea: Aitor Arana

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2020

ISBN 978-84-9106-961-4

Ibaizabal argitaletxearen eskutik eta Aitor Aranak ederki euskaratuta, Aliziaren herrialde miragarrian murgiltzeko aukera paregabea izango dugu edizio zaindu eta txukun honetan. Aipagarria da Chris Riddell ilustratzaile ingelesak ematen dion ukitu berezi eta pertsonala. Orrialdeetan zehar, tamaina anitzeko marrazkiak agertuko zaizkigu txertaturik: batzuk kolorez margotuak, eta besteak arkatzarekin txuri-beltzez marraztuak, betiere umorez eta imajinazioz landuak.

Irakurketa andana egin da lan unibertsal honen inguruan, bai eta ikuspegi ezberdinetatik landu ere: hala psikologiaren alorretik, nola filosofiaren ikuspuntutik, zein margolaritzan eta maila artistikoan, beste askoren artean. Baina gure iritzi apalean, irudimena pizteko duen aparteko gaitasunean dago gako garrantzitsuenetariko bat. Belaunaldiz belaunaldi, irakurle andana izan da denborarekin obsesionaturik dagoen untxi txuriarekin, katu pentsalari bihurriarekin, eta beste animalia bitxi multzoarekin amets egin duena, bai eta irudimena dantzan jarri duena ere. Aipatzekoak dira Lewis Carroll idazle

britainiarrak azaltzen duen «nonsense»arenganako joera irudimentsua eta gai unibertsalak jorrazteko duen abilidade aparta: hala nola, denboraren bilakaera, bakardadea, heriotza, eta, horri kontrajarrita, bizitza eta bizipoza, besteak beste.

Badira hainbat eta hainbat liburu irakurketa bakarrean agortzen direnak, ez dutenak beste ezer gaineratzeko ahalmenik; baina horra hor irakurketa-geruza ezberdinez landuriko maisulan handiak, interpretazio eta zuku jario oparoa lantzeko aukera eskaintzen dutenak, betiere ezaugarri amankomun batekin: gozamenerako eskaintzen duten aukera paregabea. Horretarako baita literatura eta mundu miragarrietan murgiltzeko literaturak duen ahalmen berezia, Aliziaren herrialde miresgarriarekin gertatzen den bezala. Goza ezazue, bai, maisulan handi honekin; ez zaizue damutuko.

Gottuso, Pietro

1880tik irekia

Arre: Pamiela etxea; Pontevedra: Kalandraka, 2020

ISBN 978-84-9172-201-4

1880tik aurrera hitzik gabeko album bat da. Liburu honetan, 1880an irekitako liburu-denda baten istorioa kontatzen da irudien bitartez; baina denboraren joana da kontakizunaren benetako protagonista.

Estilo klasikoa duen eraikin batean kokatua dago liburu-denda; ondoan atari dotore bat dauka, eta, aurrerago, lokal komertzial bat. Denborak aurrera egin ahala, kale honetan gauzak nola aldatzen diren ikusiko dugu. Irakurlearen ikuspuntua ez da aldatzen liburu osoan, baina, orriak pasatzen ditugun heinean, agerian geratzen da denboraren joana: moda aldatzen doa, garraibideak garatzen ari dira, eta ondoko lokalean negozio mota ezberdinak nola irekitzen eta ixten diren ikusiko dugu. Horrez gain, une historikoak ere islatzen dira: mundu-gerrak, 1918ko pandemia, gizakia ilargira iritsi zenekoa, ordenagailuen agerpena...

Azken 140 urteetan izan diren aldaketa garrantzitsuenen lekuko mutu bilakatu da liburu-denda, eta irakurlearen esku dago orrialde bakoitzean agertzen diren xehetasun/aldaketa guztietan erreparatzea; ez ditugu guk denak agerian utziko, irakurlearen trebeziaren eta jakinguraren esku utziko dugu eginkizun eder hori.

Liburu-dendei egindako omenaldi txiki bat ere bada liburua. Hala ere, kritika ere aurkitzen dugu, ustezko aurrerapenak ez baitira beti onuragarriak; izan ere, betiko negozio askoren krisia eragin dute.

Pietro Gottuso italiarrak iazko album ilustratuaren Compostela saria irabazi zuen *1880tik irekia* obrarekin. Liburu ausarta eta beharrezkoa da honako hau, zer pentsa emango diguna gizartearen eraldaketaren inguruan.

Meabe, Miren Agur

Begiak zerumugan

Ilustratzailea: Ane Pikaza

Donostia: Elkar, 2020

ISBN 978-84-9027-972-4

Onartzen dugu poesia gustuko dugula. Ederra delako gustatzen zaigu, eta, aldi berean, zalantza, beldur eta poz handiak birkokatzen laguntzen digulako. Poesiak jarraibide-orri baten antz handia du, bizitzarako jarraibide-orri bat. Ilusioa egiten digu poesia-liburu berri bat irekitzeak, espazio berriak aurkitzeko irrikan egoten gara beti. Eta Miren Agur Meabek, liburu berri honekin, zerumuga zabaleko espazioa oparitu digu. Beldurrik ez...

Har ezazu fardela. Begiak zerumugan jarri eta hasi ibiltzen. Bidaia hasterakoan, bide luzea dugu aurretik, eta helburu ezberdinak. Bakoitzak bereak, handiak ala txikiak, norberarenak. Lehenago edo geroago, zalantzak agertzen dira, eta, askotan, mapetara jotzen dugu bidaia-lagun gisa. Mapa-egileak, aldiz, esploratzaile apartak dira, ausartak, jakin-mina asebetetzeko kemena dutenak.

Argi-itzaletan mela. Miren Agur Meabe sentimenduen esploratzaile bihurtu zaigu, mapa txikiak eskainiz; edozein bidaiatan beharrezko ditugun argibide xumeak emanaz. Bizitzaren bidaiaren edo bizitzaren une konkretu batzuetan (argiak edo ilunak) beharrezkoak ditugun sentimenduen esploratzailea. Iluntasunetik argira pasatzeko behar ditugun heldulekuak eskaintzen dizkigu.

Arimaren arbela. Horrela, gure bidaia osatzen goaz. Irla ederrak eta deserosoak zapaltzen. Maitasunaren eta barkamenaren bila, izarren azpian, batzuetan kexu eta beste batzuetan alai. Barruko arbela oroitzapenez betetzen, han, zerumugan, gure benetako etxea aurkitu arte.

Han-hemen marinela. Azken finean, ez al da denon helburua zerumugara iristea? Liburua 68 poemak eta 48 aforismok osatzen dute, eta guztiek eskuragarri jartzen dizkigute zerumugara iristeko GILTZAK. Ane Pikazaren ilustrazioak mundu onirikoan oinarritzen dira, eta ezin hobeto egokitzen dira egileak proposatzen digun bidaiaren ideiarra. Irudiek poemekin dantzatzen dute, eta irakurleari lerro fin bat jarraitzeko gonbita egiten diote, isiltasunetik ilusiora eramango duen lerro bat. Edizioa dotorea eta zaindua da. Poesiara hurbiltzeko liburu bikaina.

Idazlearen hitzetan, bere poesia «gardena da, irudian oso oinarritua, makulu gisa hoskidetasuna eta musikaltasuna dituena, herri-formen oihartzunak dituena, eta tarteka ozen, tarteka zurrumurruka esatekoa dena. Uste dut poema batzuk kantatzeko modukoak ere izan daitezkeela».

Liburu zoragarri hau zure poesiarekiko maitasunaren hasiera izan daiteke. Ez

zaizu damutuko! Adinik gabeko liburu bat, denak gozarazteko pentsatua.

Puerta Leisse, Gustavo

Etxean barrena

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2019

ISBN 978-84-17940-00-3

Formatu handiko album hau *Sentimientos encontrados* liburuaren euskarazko bertsioa da. Juan Kruz Igerabidek lortu du gure ustez euskaraz titulu adierazgarri bat asmatzea proposamen bitxi honentzat.

Nola jakin zer sentitzen duen pertsona batek? Eta neuk, zer sentitzen dut neuk? Ez da erraza besteek zer sentitzen duten jakitea. Ez da gauza bera zerbait sentitzea eta zer sentitzen ari garen ohartzea. Kosta egiten zaigu zenbait sentimendu ezagutzea gure baitan.

Gai horietaz dihardu liburu honek.

Liburuak bi alde ditu: goikoa, irudiz osatua, zuri-beltzean, eta behekoan, sentimenduen gaineko testuak idatzita daude. Beldurra, frustrazioa, jakin-mina, lotsa, poza, eta beste hainbat. Gehienak sinonimoak lagun; adibidez, nostalgia, barne-irrika, melankolia, *saudadea*. Testu interesgarriak, iradokitzaileak, eta irekiak eta galderaz betetakoak.

Hamasei orrialde bikoitz: goian, ezkerrean, zuhaitz bat, bizirik dagoen lizarra, eta, beste aldean, lau solairuko etxe barrua, bertan bizi diren pertsonaiekin.

Irakurketa askotarikoa egin dezakegu: ilustrazioei begiratu, testu idatziekin lotu, testuak soilik irakurri, banan-banan edo bata bestearen atzetik, pertsonaien inguruan imajinatu... Nahi dugun moduan irakur dezakegu, nahi dugun moduan jostatu, bakarrik edo lagunekin. Eta, autoreek sarreran esaten duten moduan, konturatu gabe filosofatzera iritsiko gara.

Oso proposamen aberatsa hausnarketarako, gogoeta propioa egin ahal izateko. Ikusi besterik ez dugu egin behar amaieran idazleak aurkezten duen bibliografia, autorearen iturri ugariak ezagutzeko: filosofoak eta pentsalariak, klasikoak eta garaikideak; besteak beste, Agustin, Aristoteles, Benjamin, Damasio, Lukrezio, Weil.

Odriozolaren ilustrazioak ederrak dira, soilak, zuri-beltzekoak, pertsonaiak eta espazioak, geometria eta eguneroko bizitza, nahiko estatikoak, irakurleak espazioak eta pertsonaiak mugitzeko askatasuna eduki dezan.

Liburuak irakurle behatzailea, kurioa, pazientea eskatzen du edo haurren irakurketa gidatzeko heldu trebea, aldami moduan haurren ondoan egoteko.

Tullet, Hervé

Ideia bat izan dut

Itzultzailea: Aztiri itzulpen zerbitzuak

Donostia: Tarttalo, 2018

ISBN 978-84-9843-808-6

Proposamen sortzaile eta estetiko baten bitartez jolasten du Tullet artistak, galderak botaz eta grafismoen (berbalak eta kolorezko marrak zuriaren gainean) bitartez bidea eginez eta erantzun posibleak aurkituz.

Ideia baten sormena, jaiotza, haren kontzientzia edota intuizioa fenomeno ulertezinak dira, magikoak dirudite. Bada, liburuan zehar, grafismo horiek lortzen dute prozesu konplexu horri ikusgarritasuna ematea. Baina, ideia bat izan aurretik, bilatu egin behar dugu, eta bilatuz eta bilatuz, eta galdetuz eta galdetuz, eta okerrak birbideratuz, agian lor dezakegu ideia berri eta original bat. Saiatu behar du, eta irekiak egon. Eta, gainera, kontzentrazioa behar dugu, eta kemena, erruak gainditzeko. Baina zer poza, ideia bat aurkitzen dugunean!

Liburu honetan, autoreak ez du irakurlearekin interkonektatzen, ez du harekin jolasten, irakurleek ez dituzte orrialdeak ukitu behar, liburua ez da jolas objektu bat. Konexioa buruan gertatzen da, eta haurra gonbidatua dago pentsamenduaren prozesua ulertzera eta esperimendatzera.

Garai hauetan, merkatuak eta haren menpeko publizitateak arinkeriarra bultzatzen gaituzte, gauzen eta gertaeren azalean gelditzera. Oso erraz bizi gara, sakondu gabe, denbora eman gabe hausnarketarako, denbora hartu gabe gure barnea eta besteen barnea entzuteko, behatzeko. Testuinguru honetan, gure ustez, Hervé Tullet artistak maisuki egiten du ikasketaren, behaketaren eta ikerketaren aldeko apustua.

Liburuak sosegua eskatzen du, eta irakurketa bakar bat ez da nahikoa; albuma hainbat aldiz irakurri behar da gogoeta bakoitza dastatzeko, prozesu osoa kontenplatzeko. Prest baldin bagaude patxadaz hartzeko, oso liburu gomendagarria da, txikientzat eta nagusientzat. Ikasteko eta pentsatzeko plazera piztuko digu denoi, eta sormenerako bideak ireki.